

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa aurrera ateratzeko ezinbestekoak ditugu gure hornitzaileak izatea, izan ere, gure enpresaren funtzionatzea ahalbidetuko dute. Gure hornitzaileei esker negozio-eredua optimizatzea eta hainbat motatako baliabideak eskuratzea lortuko dugu.

Gure enpresak aliantzak egingo ditu ondorengo arrazoiak direla eta. Lehendabizi baliabideak eskuratzeko “Desegite Olotzaga” eta “Desegite Osinalde SL”-rekin jarri gara kontaktuan eta adostu dugu erabili behar ez dituzten autoak eman eta behar izanez gero, moztu egingo dizkigutela. Bezeroak bere autoa ekarriz gero mozteko prest daudela esan digute 100€ren truke.

Web gune bat sortzea pentsatu dugu gure zerbitzua ezagutzera emateko. Horretarako, Aimarrek sortuko du web gunea, izan ere, informatika ikastaro batera joan zen eta gaian aditua da. Ondorioz, bere ekipo informatikoa baduenez, ez dugu gasturik edukiko webgunearen eta informatikoaren aldetik.

Alde beretik, garajearen alokairua ordaindu izan beharko baina merkea izango da, izan ere, UGGASA agentziari eskatu diogu gune bat desmontaketa eta margoketa lanak egin ahal izateko eta beraiekin adostu dugu lau urtetarako tokia utziko digutela eta bertan wifi- sarea eta bulego bat izango dugu webgunean lanean jardun ahal izateko 60€ ren truke hilabetean.



Arriskuak murrizteko hainbat segururekin hitz egin dugu, aukera onena Allianz Seguruak eskaini digu eta hau hautatu dugu zerbitzu hona eskaintzen zigutelako, 200€ ordainduko dugu hilabetean guztion artean orduan, 2.400€ urtean izango dira.

Beste alde batetik ordea, “Montó” izena duen enpresa batekin egin ditugu aliantzak, izan ere, autoak margotu behar izango ditugu eta margotzen lanetan jarduteko materiala hemen hartuko dugunez, erosketa bakoitzeko %10eko deskontua egingo digute, hau da, “Montó” izango da margoketa lanetako hornitzailea.



Azkenik, ez dugu denda fisikoa izango baina bai webgunea ondorioz alokairua ez dugu ordaindu behar baina webgunearen bidez jende gehiagora iritsiko garenez garraio enpresa batekin aliantza egitea adostu dugu, izan ere, produktu pisutsuak dira eta hauen kostua normalean garestia da eta ez du edozein enpresak egiten; horregatik, aliantza eginez deskontuak izango ditu eta gainera bezeroei azkar eta seguru iritsiko zaie eskatutako produktua. Aliantza hau "Stop and Go Transporters"-ekin egingo dugu, hain zuzen ere, produktu pisutsuak garraiatzeaz arduratzen dira Europa guztian zehar, 10€ 50kg bakoitzeko. Europara bakarrik hedatzea pentsatu dugu, hain zuzen ere, beste kontinente batzuetara garraiatzea kostu handia eta gainera asko kutsatuko luke.



MAIA
Altzariak